

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Zuen ingurua aprobetxatuta

- ✓ **Eta gure Jakipedian agertuko diren jakiak erabiliz dastatze-saio bat antolatuko bagenu?** Mmm... Zer goxoak jengibrezko galletak edo ahuakate-entsalada! Animatzen bazarete, ziur, oso ondo pasatzeaz gain, errezeta berriren bat ikasiko duzuela!
- ✓ Ba al duzue **elikaduraren arloan lan egiten duen ezagun euskaldunik** (nutrizionista, medikua, arrain-saltzailea, okina, harakina...)? **Ez galdu hari elkarrizketa egiteko aukera:** nolako elikadura dugu?; zer jaki da gomendagarri?; zer **jaki**, kaltegarri?... **Elkarrizketa egin ondoren, ikaskideei kontatu nolako esperientzia izan den eta laburbildu inkestari esker ikasitakoa.**

### Internet aprobetxatuta

- ✓ Hona hemen sarean elikagai eta elikaduraren inguruko informazio interesgarria ematen duten pare bat webgune: [www.zientzia.eus/gaiak/dietetikaelikagaiak/](http://www.zientzia.eus/gaiak/dietetikaelikagaiak/) eta <https://www.consumer.es/eu/alimentacion-eu>. Animatu, **webgune horietako artikuluren bat irakurri eta ikaskideei informazioa garrantzitsuena ahoz laburtu.**
- ✓ [www.alea.eus](http://www.alea.eus) aldizkari elektronikoan, **Nagore Enciso** nutrizionistak badu zutabe bat. Animatu zutabe horietakoren bat irakurtzen eta ikaskideei informazio garrantzitsuena ahoz laburtu.